

ASKI DA, TXIROTUTAKO PERTSONEI MURRIZKETA GEHIAGO EZ. Pobreziarekin bukatuko duen DSBE bat behar dugu.

Pasa den abendua, Eusko Jaurlaritza eta EH Bilduren arteko 2019ko aurrekontuen balizko akordio baten apurketarekin bukatu genuen. Apurketa horrek pozten gaitu akordio txar bat zelako, EH Bildu negoziatzera inoiz sartu behar ez zena.

Urtea aurrekontu luzaketarekin hasi dugu, baina Eusko Jaurlaritza hori zuzentzen saiatuko da «2019rako Premiazko Aurrekontu Neurrien Lege»arekin. Honako hauek biltzen dituen proposamena aurkeztu dute zehazki: funtzionarioentzako % 2,25eko soldata igoera, hezkuntza pribatura bideratutako finantziario publikoaren hobekuntza bat eta DSBEaren % 3,5eko igoera eta % 4,5ekoa eskubide horren jasotzaile diren pentsiodunen kasuan. Azken hori, pentsiodunei dagokienez, joan den abenduan aurrekontuen negoziaketan EAJ-PSEk egindako eskaintzaren oso azpitik dago.

Igoera proposamen hori huskeria bat da, Patxi Lopezen (PSE-PSOE) Eusko Jaurlaritzak 2012ko aurrekontuetan % 7ko murrizketa egin zionetik DSBEko diru laguntzek jasandako atzerakada handiarekin konparatzen badugu. EAJ-PSEren ondorengo gobernuek mantendu dutena, batez ere Urkulluren gobernuak urtez urte DSBEaren legediko klausulari men ez egitea erabaki zuenetik, zeinak DSBEaren zenbatekoa LGSaren % 88ra eta pentsioen % 100ra iristea behartzen zuen.

Eusko Jaurlaritzaren proposamena da langabetuen edo lan prekarioa dutenen sarrera 667€ arte osatzea, baina «Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea» aplikatuta 924€ artekoa izan beharko litzateke, 257€ko murrizketa euren sarreretan, alajaina. Pentsiodunen kasuan, aldiz, 285 eurotako murrizketaz ari gara, euren erretiro pentsioa 765 eurora arte osatua izango dute, legea beteko balitz, ordea, 1.050 eurora artekoa izan beharko litzateke. Laburbilduz, EAJ-PSEren proposamena jendarte honetako pertsona txiroenen sarrerak % 37 murriztea da.

Ondorioa argia da. 2012tik, 2008-2013 Atzeraldi Handiaren puntu gorenetik, gure jendarteko pertsonarik zaugarrienak, DSBEa jasotzen duten pertsonetan nortuak, EAEko ondoz ondoko Gobernuak eta horien aurrekontuek zigortuak izan dira. Ekonomia zikloak aldaketa izan duenean, azken bosturtekoan gertatu bezala, diru laguntzen susperraldian zerbait aurreratu ordez, gizarte talde gehienetan gertatu dena, euren egoerak makurtzen jarraitu du.

Eusko Jaurlaritzak, beste behin ere, pertsona txirotuenei bizkarra eman die, pobreziarekin bukatzeko gai izango den proposamen bat aurkezteko aukera galtzen utzita. Pobrezia arriskuan dauden 318.000 pertsona bazterrean utzi ditu, biztanleen % 14,5, horietako asko emakumeak.

Gogoratu beharra dugu Eusko Jaurlaritzaren beraren «Pobrezia eta Gizarte-ezberdintasunen Inkesta»k diola badirela 60.000 pertsona pobrezia larriko egoeran egonda ere DSBEa jasotzen ez dutenak, eta beste 63.000 pertsona (jasotzaileen % 47) jasota ere pobre izaten jarraitzen dutenak, hortaz, DSBEaren inguruko edozein proposamenen helburua egoera horri buelta ematea izan beharko litzateke: txiroa den inor DSBEa jaso gabe ez geratzea edo horren hartzaile den inork pobre izaten ez jarraitzea.

Bete-betean hauteskunderi begirakoa den EAJ-PSEren proposamen honen ostean, datozen egunetan Eusko Jaurlaritza osatzen duten alderdien eta oposiziokoen arteko adierazpenak entzungo ditugu, ez da, zoritxarrez, gaia sakonean eztabaidatuko, pobreziarekin nola bukatu, adibidez, hauteskunde hitzorduari begira hobekien geratzen saiatu baizik ez dute egingo.

Gure bidea beste bat da. 2017. urtean bazterketa sozialaren aurkako plataformek, tartean Argilan-ESK, «EZETZ ESATEN DIOGU» ekimenaren barruan 19 egunetako gose greba egin genuen aipatutako murrizketa berdinak erretiratzea aldarrikatzeko, eta herri honetako gehiengo soziala osatzen duten antolakunde sozial, sindikal eta politiko zenbatezinen babesa jaso genuen. Bidegabekeria latz honi aurre egiteak azken urteetan pobrezia-rekin bukatzeko gai den DSBE baten alde batu garen dozenaka antolakunderen elkartasuna berriz aktibatzea eta gure protestak kalera ateratzea eskatzen du.

